INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZA

IZENBURUA: PROGRAMATUTAKO IPPC JARDUERAK IKUSKATZEKO PROZEDURA

Erreferentzia: PG-DAA-SI-01

Berrikuspena: 02

AURKIBIDEA

1.- XEDEA 2
2.- IRISMENA 2
3.- IKUSKAPENEN PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA 2
4.- INGURUMEN IKUSKAPENA. FASEAK 2
5.- IKUSKAPEN AKTA 3
6.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK 3
7.- IKUSKAPEN TXOSTENA 3
8.- INGURUMEN ARRISKUAREN EBALUAZIOA 4
9.- SEGIMENDU EKINTZEN IKUSKAPENA 4

Berrikuspenen kontrola

Berrikuspena	Data	Berrikuspenaren zergatia
01	2011/08/31	Prozedura egitea
02	2014/01/28	Prozeduraren osoko berrikuspena

1.- XEDEA

Prozedura honen xedea Ikuskapen Zerbitzuko (IZ) teknikariek programatutako IPPC jardueren ikuskapen prozesuan erabili beharreko metodologia zehaztea da.

2.- IRISMENA

Dokumentu hau IPPC enpresei egin beharreko ikuskapen programatuetan aplikatuko da, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua betetzeko, zeinak industriako isurpenen Erregelamendua onartzeaz gainera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen baitu.

3.- IKUSKAPENEN PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA

Euskadiko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planak arautzen du ingurumena ikuskatzeko eta kontrolatzeko zereginak programatzeko eta egikaritzeko sistematika. Plangintza hori hainbat urtetara begira egiten da, eta bere edukiaren barruan zehazten da berori garatzeko eta ezartzeko estrategia.

Urtero egiten den Ingurumenaren Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programak jasotzen du IPPC jardueren segimendurako ikuskapenen programazioa.

Jarduera berrien kasuan, abian jarri den urtearen hurrengo urterako programatuko da ikuskatze-bisita.

Gainerako jardueretan, hasierako egoera batetik abiatuta egiten da ikuskapena; egoera horretan, ikuskatu beharreko instalazio guztiei egindako ingurumen-arriskuen ebaluazioa edukiko da. Aipatutako ingurumen-ebaluazioaren emaitzaren arabera, jarduera bakoitza zenbatean behin ikuskatu erabakiko da, urtebete eta hiru urteren artean.

Ingurumen-arriskuen ebaluazioa V77b aplikazio informatikoaren bitartez egiten da, IRAM metodoaren arabera arriskuak ebaluatzeko PG-DAA-SI-ER-IRAM prozeduran deskribatutako jarraibideak aplikatuz.

Ikuskapen-programan, jasoko dira bai aurreko urtean abian jarritako jarduera berriak eta baita ikuskatu beharreko jardueren zerrenda, egindako arriskuen ebaluazioaren arabera.

4.- INGURUMEN IKUSKAPENA. FASEAK

Dagokion urteko programaren barruan ikuskatu beharreko IPPC jardueren zerrenda prest dagoenean, ikuskapen-organoko kide diren ikuskatzaileen artean banatuko dira jarduerak, barne-antolaketa egin dezaten.

Ikuskatzaile bakoitza arduratuko da ikuskapena egiteko izendatu zaizkion enpresak kudeatzeaz.

Oro har, ikuskapenak ondorengo fase hauek izango ditu:

- Ikuskatze-bisita prestatzea
- Ikuskatze-bisita egitea
- Emaitzak aurkeztea eta jardutea
- Jardueraren ingurumen-arriskuaren ebaluazioa egitea

Ikuskapena egiteko, IPPC jarduerak ikuskatzeko PG–DAA-01-IPPC barne prozedurako metodologia jarraitzeaz gainera, Ikuskatzailearen Eskuliburuan jasotako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Izendatutako erakundeek, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29.1 artikuluaren arabera, funtzionario publikoentzat erreserbatuta ez dauden ikuskapen-jarduerak egikaritu ahalko dituzte.

Ikuskatzaileak aholkulari teknikoak lagun dituztela joan ahalko dira, baina azken horien egitekoa ezagutza teknikoetan oinarritutako aholkuak ematera mugatuko da; ez dute inoiz agintaritza-agentearen eginkizunik izango.

Aholkulari teknikoak eta izendatutako erakundeak organo eskudunen bitartez behar bezala identifikatuta egongo dira; gainera, beren funtzioak burutzean ezagutzen dituzten datuak eta informazioak isilpean gorde beharko dituzte.

Ikuskapen batean nabarmen geratzen bada ingurumen-baimen integratuaren baldintzak ez dituztela betetzen, uztailaren 1eko 16/2002 Legean aurreikusitako zehapen-araubidearen kaltetan izan gabe, sei hilabeteko gehieneko epearen barruan, beste bisita bat egingo da instalaziora.

5.- IKUSKAPEN AKTA

Ikuskapena amaitu eta berorren emaitza gisa, ikuskapen-akta bat idatziko da; bertan, ikuskatu diren alderdiak eta ikusitako gertaerak jasoko dira. Akta, agiri publiko gisa, ikuskatzaileak izenpetu beharko du, eta jardueraren ordezkariari eskainiko zaio izenpetu dezan; ordezkariak sinatu nahi ez badu, Aktan adieraziko da ez duela izenpetu nahi izan. Era berean, aktaren kopia bat emango zaio jardueraren ordezkariari.

Ikuskatze-zereginen ardura duten funtzionarioek egiaztaturiko egitateek froga-balioa izango dute; hala eta guztiz ere, administratuek frogak aurkeztu ahal izango dituzte, beren eskubideak edo interesak aldezteko.

6.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK

1. Zehapen-prozedura behin hasita denean, hura ebazteko eskumena duen organoak, ofizioz edo alde batek eskatuta, noiznahi, zergatien azalpena barne duen akordioaren bitartez, egoki irizten dituen behin-behineko neurriak ezarri ahalko ditu ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak edo kalteak mantentzea ekiditeko, eta haien babeserako ezinbestekoak diren neurriak aginduko ditu, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 34. artikuluan xedatuaren arabera.
2. Helburu berberarekin, larrialdi-kasuetan eta inplikatutako interesak behin-behinean babesteko, ezinbesteko behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, zehapen-prozedura hasi aurretik; horrelakoetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 72.2 artikuluan ezarritako mugak eta baldintzak bete beharko ditu, bai eta aplikatu beharreko gainerako arauak ere, eta ezingo da ezein kasutan gainditu indarrean dagoen araudiak markatutako epea.
3. Behin-behineko neurriak arrazoizkotasunean oinarrituta hartuko dira, eta titularraren egoera juridikoa gutxien kaltetzen duena hautatuko da.

7.- IKUSKAPEN TXOSTENA

Programatutako bisita bidez ikuskatutako IPPC jarduera bakoitzeko, ikuskapen-txosten bat egingo da, eta bertan jasoko dira instalazioaren ingurumen-baimen integratuko baldintzak

betetzeari buruzko ondorioak eta beharrezkoak diren ondorengo esku-hartzeen ingurukoak. Ikuskapenaren emaitza gogobetekoa denean, interesatuari jakinarazten zaio, eta ez denean, berriz, dagokion errekerimendua eta/edo zehapen-espedientea irekitzeko proposamena jakinaraziko zaio.

Txostena bi hilabeteko gehieneko epean jakinaraziko zaio titularrari, bisita amaitu den egunetik zenbatuta, eta hamabost eguneko epea izango du komenigarriak ikusten dituen alegazioak aurkez ditzan.

Halaber, ingurumen-organoak argitara emango du esku-hartzeei buruzko txostena, lau hilabeteko epean, ikuskapena egin zen datatik zenbatuta.

8.- INGURUMEN ARRISKUAREN EBALUAZIOA

Ikuskapen-txostena egin ostean, jardueraren arriskuen ebaluazioa egingo da, ikuskapenak egiteko V77b tresna informatikoa erabilita.

Arriskuen ebaluazio hori erabiliko da IPPC enpresen urteko sailkapena egiteko, eta enpresa bakoitzaren ingurumen-arriskuan oinarrituta, ikuskapen-maiztasuna erabakiko da.

9.- SEGIMENDU EKINTZEN IKUSKAPENA

Baldin eta errekerimenduan operatzaileak egin beharreko zenbait jarduera ezartzen badira –informazio-eskaerei erantzutetik hasi eta dagozkion zuzenketa-neurriak hartzeraino–, jarduera horien segimendu egokia egingo da ikuskapen dokumentalen bidez, tokian egindakoen bitartez, eta abar.